

ENTZIKLOPEDIA ENBLEMATIKOA
LA ENCICLOPEDIA EMBLEMÁTICA

ETOR - OSTOA

LAS AVES
FAUNA DEL PAÍS VASCO

— II —

HEGAZTIAK
EUSKAL HERRIKO FAUNA

FAUNA DEL PAÍS VASCO

EUSKAL HERRIKO FAUNA

EL MUNDO DE LAS AVES

FENOLOGÍA	10
DOMINIOS AMBIENTALES	14
LA MIGRACIÓN	14
LA OBSERVACIÓN DE LAS AVES	20
CUADRO TAXONÓMICO	24
LISTADOS ALFABÉTICOS DE LAS AVES CITADAS	28

AVES NO PASERIFORMES

RAPACES DIURNAS	38
RATONEROS Y AZORES	38
GAVILÁN COMÚN	40
BUSARDO RATONERO	42
AZOR COMÚN	44
AGUILUCHOS Y MILANOS	46
AGUILUCHO PÁLIDO	48
MILANO NEGRO	50
MILANO REAL	52
ÁGUILA REAL	55
ÁGUILA-AZOR PERDICERA	60
AGUILILLA CALZADA	66
CULEBRERA EUROPEA	68
HALCONES	70
HALCÓN PEREGRINO	72
CERNÍCALO VULGAR	74
ALIMOCHES COMÚN	76
QUEBRANTAHUESOS	80
BUITRE LEONADO	82
RAPACES NOCTURNAS	88
LECHUZA COMÚN	90
AUTILLO EUROPEO	92
MOCHUELO EUROPEO	94
CÁRABO COMÚN	96
BÚHO CHICO	98
BÚHO REAL	100
BÚHO REAL	102
GALLINÁCEAS	106
PERDIZ COMÚN	106
CODORNIZ COMÚN	108
PERDIZ PARDILLA	109
LAGÓPODO ALPINO	112
UROGALLO	115
AVES DE CORRAL	116

HEGAZTIEN MUNDUA

FENOLOGIA	10
INGURUMEN-EREMUAK	14
MIGRAZIOA	14
HEGAZTIAK BEHATZEA	20
HEGAZTIEN KOADRO TAXONOMIKOA	24
EUSKAL HERRIAN DAUDEN HEGAZTIEN ZERRENDALFABETIKOAK ...	28

PASERIFORMEAK EZ DIREN HEGAZTIAK

EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK	34
ZABELTZAK ETA AZTOREAK	38
GABIRAIA	40
ZABELTZ ARRUNTA	42
AZTOREA	44
MIROTZAK ETA MIRUAK	46
MIROTZ ZURIA	48
MIRU BELTZA	50
MIRU GORRIA	52
ARRANO BELTZA	55
BONELLI ARRANO	60
ARRANO TXIKIA	66
ARRANO SUGEZALEA	68
BELTZAK	70
BELTZ HANDIA	72
BELTZ GORRIA	74
SAI ZURIA	76
UGATZA	80
SAI ARREA	82
GALIEKO HEGAZTI HARRAPARIAK	88
HONTZ ZURIA	90
APO HONTZA	92
MOZOLOA	94
URUBI ARRUNTA	96
URUBI ARRUNTA	98
HONTZA HANDIA	100
HONTZA HANDIA	102
GALLINAZEOAK	106
EPER GORRIA	106
GALEPERRA	108
EPER GRISA	109
EPER ZURIA	112
BAOILARRA	115
EUSKAL OILOA	116

AVES ESTEPARIAS	120
SISON COMÚN	120
AVUTARDA COMÚN	122
GANGA ORTEGA	124
ALCARAVÁN COMÚN	126
COLÚMBIDOS	120
TÓRTOLA EUROPEA	128
CHOTACHA PERDIZ	130
PALOMA TORCAZ	132
OTRAS AVES	136
ABUBILLA	136
CUCO COMÚN	140
VENCEJO	141
CHOTACABRAS GRIS	142
ABEJARUCO COMÚN	143
PÍCIDOS	144
PITO NEGRO	144
PICO PICAÑOS	146
PICO DORSIBLANCO	148

AVES PASERIFORMES

PÁJAROS DE MONTAÑA	152
ACENTOR ALPINO	153
COLIRROJO TIZÓN	154
COLIALBA GRIS	156
PÁJAROS DE MATORRAL	152
ALCAUDÓN DORSIRROJO	158
RUISEÑOR COMÚN	160
MIRLO COMÚN	161
PETIRROJO	162
CHOCHÍN	164
PÁJAROS DE BOSQUE	166
TREPADOR AZUL	166
ZORZAL COMÚN	168
ZORZAL CHARLO	169
CARBONERO COMÚN	170
REYEZUELO LISTADO	172
COLIRROJO REAL	173
AGATEADOR COMÚN	174
CAMACHUELO COMÚN	176
HERRERILLO COMÚN	178
PINZÓN VULGAR	180
PÁJAROS URBANOS Y RURALES	182
GORRIÓN CHILLÓN	182
GORRIÓN COMÚN	183
GOLONDRINA COMÚN	184
LÚGANO	185
ESTORNINO	186
TARABILLA COMÚN	187
TRIGUERO	188
JILGUERO	189
CÓRVIDOS	190
CUERVO	193
CHOVA PIQUIGUALDA	195
CORNEJA NEGRA	197
ARREDAJO	198
URRACA	200

ESTEPAKO HEGAZTIAK	120
BASOILLO TXIKIA	120
BASOILLO HANDIA	122
GANGA AZPIBELTZA	124
ATALARRA	126
KOLUNBIDOAK	120
USAPALA	128
OILAGORRA	130
PAGO USOA	132
BESTE HEGAZTI BATZUK	136
ARGI OILARRA	136
KUKUA	140
SORBELTZ ARRUNTA	141
ZATA ARRUNTA	142
ERLATXORIA	143
PIZIDOAK	144
OKIL BELTZA	144
OKIL HANDIA	146
OKIL GIBELNABARRA	148

HEGAZTI PASERIFORMEAK

MENDIKO TXORIAK	152
MENDI TUNTUNA	153
BUZTANGORRI ILUNA	154
BUZTANZURI ARRUNTA	156
SASIETAKO TXORIAK	152
ARTZANDOBI ARRUNTA	158
URRETXINDORRA	160
ZOZO ARRUNTA	161
TXANTXANGORRIA	162
TXEJETXA	164
BASOKO TXORIAK	166
GARRAPOA	166
BIRIGARRO ARRUNTA	168
GARRAZTARROA	169
KASKABELTZ HANDIA	170
ERREGETXO BEKAINZURIA	172
BUZTANGORRI ARGIA	173
GERRI TXORI ARRUNTA	174
GAILUPA	176
AMILOTX URDINA	178
TXONTA ARRUNTA	180
HIRIETAKO ETA LANDA EREMUKO TXORIAK	182
HARKAITZ TXOLARREA	182
ETXE TXOLARREA	183
ENARA ARRUNTA	184
TARINA	185
ARBAZOZOA	186
PITXARTXAR BURUBEITZA	187
GARI BERDANTZA	188
KARNABA	189
BELEAK	190
BELE ERROIA	193
BELATXINGA MOKOHORIA	195
BELABEITZA	197
ESKINOSOA	198
MIKA	200

RAPACES DIURNAS

BUSARDO RATONERO



Busardo Ratonero (Zapelaitz Arrunta) *Buteo buteo*

Tiene una talla de 51-56 cm. Entre las rapaces de talla media es la de distribución más amplia y uniforme en Euskal Herria, lo mismo que en la mayor parte de Europa.

Es una rapaz ubiquista que lo mismo se establece en llanuras, laderas, colinas o montaña media, siempre que encuentre bosques o bosquetes para anidar y áreas despejadas: praderas, landas o campos de labor, que son sus territorios habituales de caza.

Es frecuente ver su pesada silueta (las anchas, cola amplia y redondeada, cuello corto) planeando en círculos sobre su territorio, o sorprenderle posado sobre un poste o cualquier otro oteadero despejado, a la orilla de un campo, vigilando atento la aparición de algún ratón, topillo o lagarto, que son sus presas más comunes.

Anida normalmente en árboles, y rara vez en rocas. Construye un nido voluminoso de ramas y palos en el que pone 2-3 huevos blancos con manchas pardas. Está, como todas las rapaces, protegido por la ley.



Zapelatz arrunta (Busardo Ratonero)

Buteo buteo

51-56 cm inguru neurtzen ditu. Tamaina ertaineko harraparien artean, zapelatz da ugariena eta banaketa uniformeena duena, bai Euskal Herrian bai European.

Lautadetan, mendi-hegaletan, muinoetan edo mendi ertainetan bizi daiteke, baldin eta habia jartzeko basoak edo zuhaiztiak aurkitzen baditu, eta gunee irekiak baditu ehizatzeke: zelaiak, otalurrak edo lursailak.

Ohikoa da zapelatzaren silueta indartsua (hego zabalak, buztan handia eta biribila, lepo laburra) bere lurraldearen gainean modu biribilean hegan egiten ikustea, edo zutoin batean edo bestelako behatoki garbiren batean, lursail baten ondoan, esaterako, ikustea.

Une horretan, adi-adi egongo da, haren harrapakin ohikoenak diren saguak, lursaguak edo muskerak noiz ikusiko zain.

Zuhaitzetan egin ohi du habia, eta oso noizean behin, harkaitzetan. Adarrez eta makilez osatutako habi handia egiten du, eta orban arreak dituzten bizpahiru arrautza erruten ditu. Gainerako harrapakin guztien modura, legez babestuta dago.


EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

ZAPELATZ ARRUNTA



RAPACES DIURNAS

MILANO REAL



EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

MIRU GORRIA

Milano Real (Miru Gorria)

Milvus milvus

Tiene de 60 a 66 cm de talla.

Es migrador parcial que abandona el centro y norte de Europa en invierno, pero sedentario en nuestras latitudes, donde invernan parte de los migrantes nórdicos.

En el Pirineo abandona las cotas elevadas, en la estación fría, para refugiarse en los valles.

Se parece al Milano Negro del que se distingue por su colorido más claro, en tonos castaño-rojizos, aspecto general más esbelto y, sobre todo, por la cola más profundamente ahorquillada.

Anida en árboles, al borde del bosque y caza en los terrenos abiertos circundantes: praderas y pastizales, barbechos y campos de labor, etc.

No suele criar en cotas altas, pero es frecuente verlo sobrevolar los pastizales del piso alpino a la caza de ratones, topos, saltamontes o cualquier otro animalillo que se deje sorprender.

Su tipo de alimentación es de lo más variado: predador de pequeños vertebrados e insectos, carroñero, rebusca despojos y restos de comida en los basureros y parasita a otras aves robándoles sus presas.

Pone, en general, tres huevos en un nido de palos y ramas muertas donde amontona, a modo de forro, toda clase de materiales, como trapos, papeles, musgo, plásticos, etc.

Los pollos suelen permanecer en el nido hasta el mes de junio.



Miru gorria (Milano Real)

Milvus milvus

60 eta 66 cm artean neurtzen ditu.

Migratzaile partziala da, Europako erdialdetik eta iparraldetik alde egiten baitu neguan. Dena den, gure inguruan, Europako iparraldeko migratzaileek negua igarotzen duten lurretan, sedentariotzat jotzen da. Esaterako, Pirinioetatik alde egiten du neguan, eta ibarretan bilatzen du babeslekua.

Miru beltzaren antza du, baina kolore argiagoa du, gaztaina eta gorri-koloreko tonuekin; oro har, itxura lirainagoa du, eta, batez ere, sarde itxura nabar meneko buztana da haren ezaugarririk deigarriena.

Habiak zuhaitzetan jartzen ditu, baso-ertzetan, eta inguruko eremu irekietan ehizatzen du: zelaietan eta belardietan, lugorri eta lursailetan eta abarretan.

Ez da goi-mendietan umatzen, baina ohikoa da mendietako belardiak zeharkatzen ikustea, saguak, satorrak, matxinsaltoak edo ustekabeen har rapa dezakeen beste edozein animalia txikiren bila.

Askotariko elikagaiak jaten ditu: ornodun txikiak eta intsektuak harrapatzen ditu; saraskijalea ere bada, eta janari hondakinak bilatzen ditu zabortegietan, eta, gainera, beste hegazti batzuen kontura ere bizi daiteke, haiek harrapatutakoa lapurtuz.

Hiru arrautza errun ohi ditu makilez eta adar lehorrez egindako habian. Habian, gainera, mota guztietako materialak jartzen ditu, estalki moduan: trapuak, paperak, goroldioa, plastikoak...

Txitak habian geratu ohi dira ekainera arte.

RAPACES DIURNAS

HALCONES

Los **halcones** son un grupo de rapaces diurnas adaptadas a la persecución de presas en espacios abiertos. Su estructura y morfología les confiere habilidades para el vuelo batido y potente.

El **Halcón Peregrino** (*Falco peregrinus*), por ejemplo, está considerada el ave más rápida, capaz de alcanzar 300 km/hora en picado. Estrictamente ornitófago (se alimenta de aves), cría en cortados de sierras y acantilados marinos. Aunque padeció un descenso poblacional acusado, en la actualidad se ha recuperado y el número de parejas es aceptable.

El **Alcotán Europeo** (*Falco subbuteo*), halconcillo migrador de distribución irregular en nuestro territorio, que se alimenta de pájaros y grandes insectos voladores. Ubica sus nidos en plataformas abandonadas de córvidos u otras rapaces.

El **Cernícalo Vulgar** (*Falco tinnunculus*), el más extendido, abundante y ubicuo de los halcones, El **Cernícalo Primilla** (*Falco naumanni*), especie parecida de distribución mediterránea. En Navarra pueden criar contadísimas parejas.

El **Esmerejón** (*Falco columbarius*), el más pequeño de todos, nidificante en la tundra y área norturopea, pero que como buen migrador nos visita regularmente en otoño e invierno. Contemplar sus obstinadas persecuciones a los pajarillos constituye todo un espectáculo.



Halcón Peregrino
Belatz handia



Cernícalo Vulgar
Belatz Gorria

Belatzak eguneko harrapari-multzoan daude, eta harrapakinak esparru irekietan atzematera egokitu dira. Haien egitura eta morfologia dirrela medio, hegaldi astindua eta indartsua dute.

Belatz handia (*Falco peregrinus*), esaterako, hegaztirik azkarrena dela jotzen da, eta 300 km/h-ra irits daiteke gainbehera bizian amiltzen denean. Ornitofagoa da, hau da, hegaztiak soilik jaten ditu, eta mendietako ertzetan eta itsaslabarretan umatzen da. Garai batean atzera nabarmen egin bazuen ere, egun, berreskuratu egin da, eta bikote-kopuru nahiko handia dago.

Zuhaitz-belatza (*Falco subbuteo*) ere da talde horretako beste espeziea. Belatz txikia da, migratzailea, eta modu irregularrean banatuta dago Euskal Herrian. Txoriak eta intsektu hegalaria handiak jaten ditu. Korbidoek edo beste harrapari batzuek bertan behera utzitako plataformetan jartzen ditu habiak.


Belatz gorria (*Falco tinnunculus*) da belatzik zabalduena eta ugariena; nonahi aurki daiteke.

Naumann belatzaren (*Falco naumanni*) bikote urri batzuk uma daitezke Nafarroan. Antzekoa da, eta eremu mediterranean bizi da. Azkenik.

Belatz txikia (*Falco columbarius*) dugu. Taldeko txikiena da, eta tundran eta Europa iparraldeko lurraldeetan egiten du habia. Dena den, migratzailea da, eta udazken eta negu guztietan etortzen da Euskal Herrira. Ikuskizun paregabea da txoritxoek modu tematsuan nola jarraitzen dien ikustea.

EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

BELATZAK



Hembra
de Cemicalo Vulgar
Belatz Gorriaren emea

RAPACES DIURNAS

ALIMOCHÉ

No es sociable durante la época de cría, estableciéndose en parejas aisladas, pero en migración e invernada pueden observarse grupos más o menos numerosos merodeando por basureros, muladares u otros lugares en los que abunden desperdicios entre los que busca restos de comida. Es capaz de comer casi cualquier cosa, desde excrementos a pequeños vertebrados, moluscos e insectos. Suele mantenerse alrededor de los grupos de buitres que se afanan sobre una carroña, a la espera de atrapar alguna migaja que se escape a la voracidad de éstos.

Como nota curiosa se apunta que es capaz de valerse de una piedra, que maneja con el pico, para romper la cáscara de los huevos de avestruz.

Pone un par de huevos pero normalmente, sólo un pollo llega a volar del nido.

Umatzen den bitartean, ez du harremanik izaten espezieko beste kideekin, eta bikote isolatuetan bizi da. Baina migrazio-garaian edo negualdian, talde nahiko handiak ikus daitezke zabortegeien, animalia-hondakindegien edo hondakinez betetako bestelako tokien inguruan, janari-arrastoen bila. Ia edozein gauza jan dezake, gorotzetatik hasi eta ornodun txiki, molusku edo intsektuetaraino. Sarraskiak irensten ari diren bestelako sai-taldeen inguruan egon ohi da, horiek utz dezaketen hondarren bat jateko zain. Bitxikeria gisa esan ohi da harri bati esker (mokoarekin erabilita) ostruken arrautzen oskola apur dezakeela. Arrautza pare bat errun ohi du, baina txita bakarrak bizirauten du.




EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

SAI ZURIA

El **Alimoche Común** es una especie, como otras carroñeras, muy sensible a la utilización ilegal de venenos para combatir depredadores o plagas. Aunque no existen datos totalmente concluyentes, el número de parejas podría permanecer estable en los últimos tiempos: unas 140 en Navarra y otras 40 en la Comunidad Autónoma Vasca. El Alimoche Común, “la dama blanca del camino de los bueyes” según el apodo de los pastores labortanos, está, como otras rapaces, incluida en los catálogos de especies anenazadas y goza de protección estricta. No obstante, el riesgo de empleo incontrolado de venenos –insistiremos en el grave peligro que entraña para la fauna– supone una preocupación.

Sai zuriari ere, beste sarraskijaleei bezala, kalte handia egiten diote harrapari edo izurriteei aurre egiteko modu ilegalean erabiltzen diren pozoiek. Behin betiko daturik ez badago ere, uste da azken urteetan bikote-kopurua mantendu egin dela: 140 bikote inguru Nafarroan eta 40 bat Euskal Autonomia Erkidegoan. Lapurdiko artzainek «idien bideko dama zuria» deitzen diote sai zuria, eta, beste harrapakinak bezala, mehatxatutako espezieen katalogoaren barruan sartuta dago eta modu zorrotzean babestuta. Hala eta guztiz ere, pozoiak kontrolik gabe erabiltzeak kezka handia eragiten du. Hala, gogorazi nahi dugu faunarentzat oso arriskutsua dela.



RAPACES DIURNAS

QUEBRANTAHUESOS

Quebrantahuesos (Ugatza)

Gypaëtus barbatus

Tiene una talla de entre 100 y 150 cm;

230 a 280 cm de envergadura y un peso de 5 a 7 kg.

Es sedentario, pero de joven lleva una vida errática hasta que, a los cinco años, alcanza la madurez sexual, se empareja y fija su residencia sobre un vasto territorio, estimado en unos 200 km² para las parejas del Pirineo.

El **Quebrantahuesos**, tan grande como el Buitre Leonado, llama la atención por su esbeltez y la agilidad de su vuelo, sorprendente en un ave de su tamaño.

Las alas largas, estrechas y puntiagudas, la cola también muy larga y cuneiforme, le dan en vuelo cierto parecido a un halcón gigantesco. Visto de cerca, lo que no es fácil, puede apreciarse el vivo color amarillo de sus ojos, rodeados de un anillo rojo, muy llamativo, y la banda negra que, a modo de antifaz, va de los ojos a la base del pico, donde le nace un haz de cerdas, largas y rígidas que recuerdan un bigote.

Cría en agujeros y grietas profundas de roquedos de montaña, en voluminoso nido de ramas y palos forrado con abundante lana de oveja. Pone dos huevos pero solo saca adelante un pollo. Básicamente se alimenta de carroña, constituyendo los huesos una parte importante de su dieta; para procurárselos visita las carroñas después que los buitres han limpiado de carne la carcasa y va tragando los más pequeños. Los huesos grandes los toma en sus garras y, elevándose, los deja caer sobre una peña para que se fragmenten.

Es una de las joyas ornitológicas del Pirineo, donde se hallan establecidas unas 35 de las 75-90 últimas parejas que se calcula quedan en Europa.

El resto se reparten entre las montañas de la isla de Córcega, Grecia y la cordillera del Cáucaso. Una población tan reducida corre, evidentemente, un riesgo gravísimo de extinción por lo que cuantas medidas se tomen para protegerla parecen pocas. Dentro de los límites de Navarra crían tres parejas.

La gran regresión poblacional del **Quebrantahuesos**, que hasta principios de siglo criaba en otros montes vascos, como Sierra Salvada, Urkiola y Aitzgorri, se debió tanto a la persecución directa de que fue objeto, como a la colocación de venenos destinados a depredadores. Su baja tasa reproductiva condiciona el que supla con dificultad la mortalidad de aves adultas, por lo que hoy en día, se considera a los tendidos eléctricos como elementos peligrosos de cara a su conservación, y se promueve el uso de diseños y torretas de menor riesgo. En los últimos años, se han establecido algunos territorios nuevos, y se aprecia una tímida expansión hacia áreas más occidentales, como Aralar.



Ugatza (Quebrantahuesos)

Gypaëtus barbatus

100-150 cm inguru luze

eta 230-280 cm inguru zabal da,

eta 5 eta 7 kg artean pisatzen ditu. Sedentarioa da, baina, gaztetan, noraezean ibiltzen da, 5 urte bete eta heldutasun sexuala erdiesten duenera arte.

Orduan, bikotekidea aurkitu eta lurralde handi batean ezartzen du bizigunea. Lurralde horrek 200 km² izan ditzake Pirinioetako bikoteen kasuan.

Ugatza sai arrea bezain handia da, eta, hain handia izanda, deigarriak gertatzen dira hegan egitean dituen liraintasuna eta bizkortasuna. Hego luze, estu eta zorrotzek, batetik, eta buztan luze eta kuneiformeak, bestetik, belatz eraldoiaren itxura ematen diote hegan egiten duenean. Gertutik ikustea ez da erraza, baina orduan ikus daitezke hori kolore biziko begiak, inguruan eraztun gorri oso deigarria dutela, eta mozzorro baten gisara begietatik mokoaren hasieraraino duen banda beltza. Mokoan, halaber, bibotea gogorarazten diguten zurda luze eta zurrunik ditu.

Mendiko harkaitzeko zulo eta pitzaduretan umatzen da, adar eta makilez egindako eta artilez estalitako habi handietan. Bi arrautza erruten ditu, baina bakarra ateratzen da aurrera. Batez ere, sarraskiaz elikatzen da, eta hezurak haren elikaduraren zati garrantzitsua dira. Horiek lortzeko, saiek haragia hezurretatik kendu eta gero jotzen du sarraskietara, eta hezur txikiak irensten hasten da. Hezur handiak, berriz, atzaparretan hartu, apur bat gora egin, eta harkaitzen kontra botatzen ditu, apurtu daitezten.

Pirinioetako harribitxi ornitologikoetako bat da, eta, eremu horretan, 35 bikote inguru bizi dira, Europa osoan geratzen diren 75-90 bikoteetatik. Gainerakoak Korsikako eta Greziako mendietan eta Kaukaso mendilerroan bizi dira.

Hain ale gutxi direnez, desagertzeko arrisku larrian daude, eta ahalik eta neurri gehien hartu behar dira espeziea babesteko. Nafarroan, hiru bikotek hazten dituzten beren kumeak.


EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

UGATZA



En vuelo se aprecia
su cola larga y romboidal.

Hegan egiten duenean, modu argian
ikus daiteke ugatzaren buztan
luze eta erronboidea.




Iragan mendearen hasierara arte, ugatza Euskal Herriko beste mendi batzuetan ere umatzen zen, adibidez: Gorobelen, Urkiolan edo Aizkorrin.

Baina espezieak nabarmen egin zuen atzera, bai modu zuzenean jazarri zutelako, bai harrapariei aurre egiteko pozoiak erabiltzen zituztelako.

Ugalkortasun-tasa txikia duenez, zaila da hiltzen diren hegazti helduak ordezkatzea. Hala, egun, linea elektrikoak elementu arriskutsutzat jotzen dira espeziea kontserbatzeko, eta arriskua txikiagoko diseinu eta dorreak erabil daitezten sustatzen ari da. Azken urteetan, beste eremu batzuetan ere kokatu dira, eta mendebalderago hedatzeko joera dutela hauteman daiteke. Esaterako, Aralarren ikus daitezke.

RAPACES DIURNAS

BUITRE LEONADO



EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

SAI ARREA

Buitre Leonado (Sai Arrea)

Gyps fulvus

Talla de 100-110 cm;
240-280 cm de envergadura
y 6 a 8 kg de peso.


El **Buitre Leonado** es sedentario de adulto, los jóvenes realizan importantes desplazamientos hacia el sur. Pollos anillados por la Sociedad Aranzadi en colonias del Pirineo han dado recuperaciones en el centro y sur de la Península y norte de África.

Es una especie social, que establece sus colonias en cortados y paredones rocosos con cornisas y plataformas que le ofrezcan posaderos y asiento para los nidos.

Éstos suelen ser rudimentarios, un amasijo de palos, ramas y hierba que va desapareciendo según crece el pollo. Pone un sólo huevo, ya en el mes de febrero, y el pollo no abandona el nido hasta fin de julio.

A pesar de su gran tamaño, el Buitre pasa fácilmente desapercibido cuando se halla posado, pues se mimetiza muy bien sobre el fondo de rocas, pero en vuelo su amplia silueta, un tanto maciza, de alas anchas y largas, con la punta de las rémiges primarias desplegadas y la cola cona y cuadrada, se hace visible desde muy lejos. Con mal tiempo suele preferir permanecer posado al abrigo de las rocas, inmóvil, a la espera de que el calor del sol provoque la formación de térmicas ascendentes, que sabe aprovechar con maestría para remontarse, planeando en amplios círculos. Rara vez recurre al vuelo batido pues, para un ave de su peso, esta forma de vuelo exige un gran gasto de energía.

Se alimenta exclusivamente de carroña, que localiza desde el aire con ayuda de su aguda vista y no, como equivocadamente se cree, del olfato, sentido que, como la mayoría de las aves, tiene muy poco desarrollado. Su tipo de alimentación hace que sea un ave estrechamente ligada a la actividad pastoril y ganadera.



Sai Arra (Buitre Leonado)

Gyps fulvus

100-110 cm luze,
240-280 cm zabal,
eta 6-8 kg-ko pisua.

Sai arreak sedentarioak dira helduak direnean, baina ale gazteek lekualdatze handiak egiten dituzte hegoalderantz. Esaterako, Aranzadi Zientzia Elkarteak eraztunak jarri dizkie Pirinioetako kolonietako hainbat txitari, eta gero ikusi ahal izan dute Iberiar Penintsulako erdialdean eta hegoaldean eta Afrika Iparraldean zeudela.


Espezieko beste kideekin harremanetan bizi da, eta plataformak eta erlaitzak dituzten koloniak harkaitzen ertzetan eta paretetan kokatu ohi dira baldin eta horietan habiak jartzeko tokia badute. Habiak bakunak izan ohi dira; makilak, adarrak eta belarra pilatzen dituzte, eta material horiek desagertu egiten dira txita hazten den heinean. Arrautza bakarra erruten du otsailean, eta txita uztailearen bukaerara arte geratzen da habian.

Tamaina handia badu ere, zaila da saiari antzematea pausatua dagoenean. Izan ere, oso ongi mimetizatzen da inguruko arrokekin. Hegan egiten duenean, berriz, silueta nahiko zurr-una du: hego zabal eta luzeak, oinarrizko arraun-lumen punta zabalduak eta buztan kona eta karratua; erraza da hura urrunetik ere bereiztea. Eguraldia txarra denean, nahiago du harkaitzen babesean pausatuta geratzea, geldi eta Eguzkiaren beroak uhin termiko gorakorrek noiz sortuko zain. Izan ere, trebetasun handia du uhin horiek baliatuz hegan egiteko, biribil handietan planeatuz. Gutxitan astintzen ditu hegoak, hain hegazti mardul izanda energia asko baliatu behar bailuke modu horretan hegan egiteko.

Sarraskiaz soilik elikatzen da. Sarraskiaren kokagunea airetik bertatik jotzen du begiz, haren ikusmen bikaina baliatuta. Ez du, bada, nahiz eta uste zabaldua izan, usaimena erabiltzen. Izan ere, hegazti gehienek antzera, usaimena ez dauka batere garatuta. Haren elikadura-mota ikusita, artzaintzari eta abeltzaintzari estuki lotua dagoen hegaztia da.

RAPACES NOCTURNAS

LECHUZA COMÚN



OTRAS AVES

GALLINÁCEAS

Perdiz Común (Eper Gorria)

Alectoris rufa

Talla 34 cm. La **Perdiz Común** es sedentaria; no abandona para nada su territorio. Solo las que viven en zonas altas, de montaña media, suelen desplazarse a laderas más bajas o llanos próximos en invierno, cuando la nieve les obliga a ello. Es una especie originaria de la Península Ibérica, de donde se ha extendido por el sur y centro de Francia, alcanzando una pequeña parte del noroeste de Italia y puntos aislados de Suiza. En Inglaterra la han introducido en algunas zonas.

Antiguamente ocupaba toda Euskal Herria, siendo más abundante siempre en su área mediterránea, en donde el medio ofrece unas condiciones más adecuadas a las exigencias ecológicas de la especie que las de la vertiente cantábrica. En esta última zona hoy se halla prácticamente extinguida aunque se intenta su reintroducción. También en la parte mediterránea han descendido mucho sus efectivos, debido a la excesiva presión cinegética y a las modernas prácticas agrícolas –empleo de pesticidas y herbicidas, maquinaria pesada, eliminación de setos y ribazos– con resultados fatales para la especie.



Eper gorria (Perdiz Común)

Alectoris rufa

34 cm neurtzen ditu. **Eper gorria** sedentarioa da, eta ez du sekula bere lurraldea uzten. Eremu garaietan bizi direnak soilik mugitzen dira mendi hegal baxuagoetara edo hurbileko lautadetara, neguan, eta elurak hala behartuta. Jatorriz Iberiar Penintsulako espeziea da, eta handik zabaldu da Frantzia hegoaldera eta erdialdera. Are gehiago, Italiako ipar-mendebaldeko txoko batera eta Suitzako gunee urri batzuetara ere hedatu da. Halaber, Ingalaterrako gunee batzuetan ere sartu dute.

Garai batean, Euskal Herri osoan bizi zen. Dena den, ugariagoa zen eremu mediterranearean, hango egoera Kantauriko isurialdekoa baino egokiagoa zelako espeziearen behar ekologikoetarako. Egun, ia erabat desagertu da azken eremu horretatik, baina berriz sartzeko ahaleginak egiten ari dira. Mediterraneoko isurialdean ere, nabarmen txikitu da eperren kopurua, presio zinegetiko neurrigabea eta nekazaritza-praktika modernoak (pestizidak eta herbizidak erabiltzea, makineria astuna, heskaiak eta ezpondak kentzea...) direla medio. Praktika horiek, hain zuzen, efektu lazgarriak izan dituzte espeziearengan.



BESTE HEGAZTI BATZUK

GALLINAZEOAK

El hábitat preferido de la perdiz es el campo abierto: estepa cerealista, cultivos de viñedo y olivar, colinas con matorral bajo y ralo de tomillo y romero, prados y pastos mediterráneos y monte bajo, aunque se adapta a otros tipos de terreno.

Cría en el suelo, en un hoyo que tapiza con hierbajos, entre matas, pasto alto o en cultivos de cereal.

Pone un número elevado de huevos, de 10 a 15 y a veces más, siendo frecuente que saque dos polladas.

En ocasiones la hembra pone simultáneamente en dos nidos, uno incubado por ella y el otro por el macho.

A los 25 días nacen los perdigones, cubiertos de plumón y muy despiertos, capaces de correr tras sus padres a los pocos minutos de la eclosión. Al menor síntoma de peligro se inmovilizan, pegados al suelo, donde es muy difícil descubrirlos dado su perfecto mimetismo.

Hacia los quince días de vida las jóvenes perdices comienzan ya a dar sus primeros vuelos.

La alimentación es a base de granos de cereal y gramíneas silvestres, otras semillas, brotes tiernos, flores y hojas, que complementa con algunos alimentos de origen animal como insectos, caracolillos y otros pequeños invertebrados.

Tiene un vuelo potente y directo, en el que alterna un fuerte batido de alas con largos planeos. Si no se ve muy acosada suele preferir huir apeonando, corriendo con rapidez.

Las distancias recorridas en cada vuelo no suelen ser muy largas.


Eperren habitat gogokoena landa zabala da: zereal-estepa, mahasti- eta olibadi-sailak, ezka- eta erromero-sastraka baxu eta meheko muinoak, belardi eta larre mediterranearrak, mendi baxuak...

Dena den, beste ingurune batzuetan ere bizi daiteke.

Lurrean umatzen du, belarrez estaltzen duen zulo batean, sastraka edo belar altuen artean edo zereal-lursailetan. Arrautza ugari erruten ditu, 10-15 bat edo gehiago, eta ohikoa da bi txitaldi izatea. Batzuetan, emeak bi habietan erruten du aldi berean; bata berak berotzen du, eta bestea, arak. Eperkumeak 25 egunera jaiotzen dira, lumatzaz estalita. Oso biziak dira, eta gurasoen atzetik laster egiteko gai dira arrautzatik atera eta denbora gutxira.

Arrisku txikiena sumatu bezain azkar, geldi-geldi geratzen dira, lurrari estuki atxikiak, eta mimetismo paregabea dela medio oso zaila da haiek ikustea. 15 egun soilik dituztenean, eper gazteak hegan hasten dira. Zereal-aleak, basa-gramineak, beste hazi batzuk, kimu samurrak, loreak eta hostoak jaten ditu, eta animalia-jatorriko elikagaiak ere jaten ditu hala nola intsektuak, barraskilotxoak eta beste ornogabe batzuk.

Hegan egiteko modu indartsua eta zuzena du, eta astindu indartsuak eta planeatze luzeak txandakatzen ditu. Mehatxua handiegia ez bada, nahiago du azkar laster eginez alde egitea. Hegaldi bakoitzean zeharkatzen dituen distantziak ez dira oso luzeak.



BESTE HEGAZTI BATZUK

ESTEPAKO HEGAZTIAK



El **Sisión Común** cría en el suelo, en una depresión del terreno en la que pone 3-4 huevos pardos. Los pollos que son nidífugos tardan varias semanas en volar, pero corren con agilidad al poco de nacer.

Basoilo txikia lurtean umatzen da; 3-4 arrautza arre erruten ditu lurteko zokoguneren batean. Txitak nidífugoak dira, eta, hegan egiten hasteko aste batzuk behar badituzte ere, trebetasunez laster egiteko gai dira jaio eta berehala.



OTRAS AVES

AVES ESTEPARIAS



PÁJAROS DE MATORRAL

PETIRROJO

Petirrojo (Txantxangorria)

Erithacus rubecula

Talla: 14 cm. Muy común en la vertiente cantábrica y Pirineos, disminuye su población al adentrarnos en el área seca, ocupando en ella las umbrías y sotos más húmedos.

Es ave de bosque, donde ocupa de preferencia el estrato arbustivo. Se distribuye también por setos, bosquetes, huertos y jardines.

Es clásica su figura invernal, con el plumaje esponjado, cantando erguido sobre un punto despejado y señero.

Es en esta época cuando se le detecta más fácil, pues durante la cría se vuelve discreto y escondedizo, a parte de que su población aumenta durante la época fría con la llegada de migrantes.

Es sedentario en Euskal Herria.

Se alimenta de insectos, gusanos, lombrices y algunas bayas.

Coloca su nido en hoyos de muros, taludes, etc.

Pone de 3 a 6 huevos, en general manchados de pardo.



Txantxangorria (Petirrojo)

Erithacus rubecula

Neurria: 14 cm. Oso ugaria da Kantauriko isurialdean eta Pirinioetan, eta haren kopurua murriztu egiten da eremu lehorrean murgiltzen garan heinean.

Izan ere, azken eremu horretan, gune itzaltsuetan eta ibar-baso hezeetan aurki daiteke soilik.

Basoko hegaztia da, eta zuhaixkaz osatutakoak ditu gustukoak.

Halaber, heskaietan, zuhaiztietan, baratzeetan eta lorategietan bizi daiteke.

Ohikoa da txantxangorria neguan ikustea, puntu ireki eta nabarmenean pausatuta nola abesten duen entzutea eta haren luma harroez gozatzea.

Izan ere, urtaro hori da txantxangorria ikusteko aproposena, umatzen denean zuhurki jokatzeko baitu eta ezkutatzeko joera baitu. Halaber, kontuan izan behar dugu, neguan beste txantxangorri migratzaile batzuk ere iristen direla gurera.

Euskal Herrian, baina, sedentarioa da. Intsektuak, zizareak eta zenbait baia-mota jaten ditu.

Harresietako, ezpondetako eta abarretako zuloetan jartzen du habia.

3-6 arrautza inguru erruten ditu, orban arreak izan ohi dituztenak.

